



## Zer da "Ineco RuralTIC"?

MITMA barruan dagoen Ineco enpresa publikoak diseinatutako programa bat da. Esperientzia zabala du mugikortasun eta eraldaketa digitalaren arloan, eta teknologia berriek ematen duten ahalmena erabiltzea du helburu, landa ingurunean biztanleria finkatzen laguntzeko.

## Nola laguntzen du Inecok landa ingurunea digitalizatzen eta ikusarazten?

Udalerrri txikietan digitalizazioa sustatuz, bi ekintza ardatzen bidez:

**1 Digitalizazio soziala:** teknologia berrien erabileran trebatzea, batez ere edadetuenei dagokienez (WhatsApp eta beste komunikazio sare batzuk, banku mugikorrak, hitzordu medikoak, administrazio izapideak, etab.).

**2 Digitalizazio ekonomikoa:** enpresa ehunari aholku emanaz, bere posizionamendu digitala indartuz, dituzten web zerbitzuak sortuz edo hobetuz, sare sozialetan duten presentzia ezarriz, jarduera optimizatuko duten aplikazio espezifikoak diseinatuz, etab.

## Nork garatuko du Ineco RuralTIC?

Arlo horietan jakintzak dituzten Inecoko profesionalak, borondatez izena eman eta landa ingurunera joango direnak; aldi berean, beren lanaldia telelanaren ereduaren bidez egingo dute eta udalerriko biztanleei eta ETE-*ei* digitalizazio sozial eta ekonomikoari buruzko prestakuntza lantegiak ere bai. Esperientzia aitzindaria eta berritzailea da, parte hartzaileei ingurune horretan bizitzeak dakartzan abantaila guztiez gozatzeko aukera emango diona, eta, eskura, era horretako udalerrri eta herriek duten turismo eskaintza esklusibora eta natura- eta kultura-ondare bakarrera hurbiltzeko aukera izango dute.

## Non bultzatuko da Ineco RuralTIC?

Abiapuntuko betekizunak (4G, Inecoko boluntarioen egonaldi kostuak onartzea eta lantegiak egiteko guneak) betetzen dituzten 10.000 biztanletik beherako 50 udalerritan, hautaketa prozesuan beste parametro osagarri batzuk ebaluatuko dira (hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak, gazte ekintzailtzako ETEak egotea, turismo eskaintza, kultura eskaintza, udalerria osatzen duten toki erakunde txikien kopurua, eta abar).



## Noiz jarriko da abian Ineco RuralTIC?

**Udaletako hautagaitzak aurkeztea:** 2022ko ekainaren 8tik 27ra  
**Hautatutako udalerriak argitaratzea:** Iraileko 1. hamabostaldian  
**INECOko profesionalen izen ematea irekitzea:** Iraileko 2. hamabostaldian  
**2022ko programaren garapenaren hasiera:** 2022ko azaroa